

EUSKAL FRONTOIA ERROMA ERDIGUNEAN

Aita Zenon Uriguen pasiotarra



PILOTA FRONTOIA.

Izen aundiko eliza da San Carlo Quattro Fontane. Txikia dalako, San Carlino esaten dautse baña, benetan bitxi izkutatua zan Erroma urian. Borromini ren arte barrokoa, arrigarrizko biurgunez eta arte ederrez dotoretua Erromaren erdigunean. Eta bere barruan ezkutaturik, gordeta bezela, beste sekretu bat Euskal pilota frontoia. Arritzekoa da ain toki txikian eta Erroma aundi eta zabalean, euskal talde txiki batek mundu osoan ezaguna dan Pilota frontoia jartzea.

LEKAIDEAK ETA PILOTA.

Gauza goragarria da euskaldunak mundu zabalera osoan ikustea, eta batez be Misio lurraldetan eta elizetan. Bai Erroma uriburuan fraile euskaldunak ugariak izan dira eta Trinitarioak, euretatik euskaldunak asko, leen aitatu dogun San Carlo ondoan, bere alboko lurrean Euskal Frontoia eraiki izana Quirinale eta Via Beneto ondoan. Euskal errian oso ezagutuak dira Algortako Trinitarioak, eta Beato Domingo Iturrate, Dimako semea.

Eta ona emen Erroman Euskal frontoiaren istoria. 1940 urtean Italiako Jaurlaritzak eraitsi egin eban, antxinako San Dionisio lekaide etxea, eta bertan eraiki eben etxe ederra ta galanta. Eta zer? Bertan geratu zan lur zati bat eta Trinitarioei eskaiñi eutsen. Auxe bai aukerarik onena lur zati ortan euskal frontoi bat eraikitzeke. Esan eta izan

PILOTA GOGO BIZIA.

Bai, euskal frontoian, Erroman pilotan ekiteko. Lur onetatik gertu dago Jesuiten Universidad Gregoriana. Bertan makiña bat euskaldun ikasleak eginen dira irakasle ospetsuak eta ainbat gaietan profesionari zelebreak. Egun batetik bestera Euskal frontoiak berebiziko fama artu eban eta pilotan jokatzeko euskal gazteek, asteburuetan, lar ugariak izanik, zer egin? Onako arazoak eta buruaustek urtenbide onberatsua artu bear dabe. Origaitik pilota partiduak zokondoratu barik, asteburuetan torneoak eta ordutegiak eratu ziran. Eta Beato Domingoren jaietan, maiatzaren azkenetan, pilota txapelketa ospatzen zan, zoragarrizko sariak, txistulari ta dantzak, eta batez be, bazkari jai gozoak.

Zoritxarrez frontoia txikia da, ez daukoz legezko neurriak eta origaitik ofizialki etzan legezkatua izan. Baña pilota zaleei nork ukatu euren jokaldi gozatsuak egitea?

PILOTAREN ILLUNABARRA.

Berrogei urtetik gora, gitxi gorabera, iraun eban frontoi onek gazteei bere serbitzuak eskaintzen. Eta gero zer? Ona emen. 2.003 urtean, Juan Pujana, otxandiotarra izan zan azkena frontoi onetan jokatzeko ebana. Eta zoritxarrez ez dago emen pilota zale euskaldunik. Gaurko egun zoritxarretan zer ikusten dogu? Familietan ume gutxi, eta frailetan frailegai urri. Ordutik ona gure Erromako euskal frontoia arrakalatuta dago bere ba-kartadea katuentzat leku berezia izanik.

Azkenik. “La Gazzeta dello sport”ek adierazten dau, 2002 urtean, ikusi ebela Erroman beste frontoi bat, EUR deritxon aldean Marista lekaideen Etxe Nagusian 2006 urtean egiña España eta ego Ameriketako ikasleentzat. Eta gaur egun utzik dagona. Nora doaz orain arteko ain gauza ederrak familietan, gizartean eta fedean?

Bai, egia da gure asaba zaarren esana: **“Zalditik astora, eta astotik lurrera”**